

HOROSKOPOA



ARIES Martxoak 21etik Apirilak 20ra.

Pena bat da daukazun intelijentzi horrekin hain gauz gutxi egitea. Zure ideiak unibertsalak direla ta, ez moztu. Imaginazioa erabili eta bizitza petral honetan aplikatuko dituzu. Hain bokadilo luzeak ez jan arratsaldetan.



TAURO Apirilak 21etik Maiatzak 20ra.

Maitasunaren arloan gehiegi nahasten zara. Zure signo berdinekoak badira, lasai, segi hortan. Baina Eskorpio edo Sajitario baten besoetan erortzen bazara, izorrai. Ez duzu karrerik aterako. Ahoan enpaste pare bat beharko dituzu.



GEMINIS Maiatzak 21etik Ekainak 20ra.

Beti zuen itxuraz arduratzen... Badakigu ez zaudetela gaizki, baina ispiluaren aurrean hainbeste denbora pasa beharrean gauz produktiboren bat egin. Horretarako asko balio duzu ta. Psikosis III pelikula ez zegok gaizki. Ikustera joan, gero esango...



KANZER Ekainak 21etik Uztailak 20ra.

Beti hilargiari begira. Ondo dago lunatikoak izatea, baina martxa hortan aurpegian hileak irtengo zaizkizue. Amore platonikoak baztertzea ez legoke gaizki, ze deskuidatzen bazara zorte haundia edukiko duzu hanka oker jiboso/a batekin ezkontzen bazara. Bazkaldu aurretik bikarbonato piska bat hartu.




LEO Uztailak 21etik Abuztuak 21era.

Noizpait mesederik jaso nahi baduzu, hain arroputza ez izan jendearekin. Kirolaria bazara, ondo. Eta ez bazara, espabilatu. Estudioak hain serioki ez hartu.




VIRGO Abuztuak 22tik Irailak 22ra.

Hain langilea beti eta esker onik inoiz jasotzen ez. Lasai, ulerkorra izan zaitez. Gauz bakoitza bere momentuan iritxiko zaizu. Ezinezkoak ez diren enpresetan ez sartu, hobe...



LIBRA Irailak 23tik Urriak 22ra.

Gauz sinpleekin konformatzen ez bazara, segi aurrera, zuek asko balio duzute. Jendea ez tratatu hain superfizialki. Onak zarete, baina ez adierazi alderantzizkoa. Lo gehiago egin.




ESKORPIO Urriak 23tik Azaroak 22ra.

Zuen indarra txorakerietan galdu beharrean, gertuago dituzuen gauzetaz gehiago arduratu. Alkohola eta beste drogak ere gehiago kontrolatu. Ez bada horrela, loari denbora gehiago eskaini. Ironia gutxitu, kaka bat da...




SAJITARIO Azaroak 23tik Abenduak 20ra.

Beste sexoarekin ez izan hain gogorrak. Hain promiskuoak bazerate zuen parekoekin izan, besteak bakean utzi. Bestela zuek ere astinduren bat jasoko duzute. Zuen buruari hainbeste garrantzi ez eman.



KAPRIKORNIO Abenduak 21etik Urtarrilak 19ra.

Beno, ez zarete beti zuenarekin irtengo. Ez duzute dena kontrolpean. Gauz gehiegi ez inguratu, bestela ezer gabe geratuko zarete. Ambizioa kontu. Ondo dago edukitzea, baina sobran baduzue adieraztera emango duzute arlo guztietan, eta jendea nazkatuko duzute.



AKUARIO Urtarrilak 20tik Otsailak 18ra.

Saturno gripekin dagoenez dena zuk egin beharko duzu. Hain akaparadorea ere ez izan. Amodioan oso absorbenteak direnak azkenean gorrotatuak bukatzen dute. Badakizu... Zuek etorkizuna gaur ikusten duzute, baina ondo kalkulatu... dena.



PISZIS Otsailak 19tik Martxoak 20ra.

Besteen arazoak hain naturalki ikustea erraza da zuentzat. Baina zuenak direnean, akabo! Onegiak zarete eta sarritan konturatzen zarete hortaz, orduan dragoi batzuetan bihurtzen zarete. Lastima. Baina, hi, lasai, segituan pasatzen duk eta. Sendagilearengana jo zirkulazioarentzat kontseilu baten bila.